## CATEQUESIS DE PRIMERA COMUNIÓN

Con la catequesis de Primera Comunión comienza una **nueva etapa** en el proceso de iniciación cristiana de nuestro hijo o hija. Ya sea en la parroquia o en otros grupos de catequesis, van a aprender a vivir la fe como una experiencia grupal, desde la referencia de la comunidad cristiana.

Allí tendrán momentos de escuchar y aceptar a los demás niños y sentirse miembros de **la Iglesia como grupo de amigos de Jesús**. Durante el proceso aumentará su capacidad para comprender los elementos del cristianismo, centrándose en la vida de Jesús, en las narraciones y libros de la Biblia.

La clave es que no sólo el niño, sino toda la familia viva el proceso de catequesis. Para ello es importante **mostrar nuestro interés** participando en las charlas para padres y madres, actividades, celebraciones, etc.



## LEHEN JAUNARTZEKO KATEKESIA

Lehen Jaunartzerako katekesian **etapa berri bat** hasten da gure seme-alabaren kristau sarbideko prozesuan. Etapa horretan fedea talde esperientzia bezala bizitzen ikasiko du (parrokian edo beste katekesi taldeetan). Aukera bat da fedea taldean eta kristau komunitate ikuspegi batetik bizitzeko.

Katekesian badira momentuak beste haurrei entzun eta onartzeko eta **Jesusen lagun talde bezala Elizaren kide sentitzeko**. Prozesuan zehar Jesusen bizitzan eta Bibliako narrazio eta liburuetan zentratuko dira eta kristautasunaren osagaiak ulertzeko gaitasuna garatuko dute.

Gakoa honetan datza: katekesi prozesua familia osoak bizitzean eta ez haurrak bakarrik. Horretarako garrantzitsua da **gure interesa erakutsi** eta gurasoentzako hitzaldi, katekesi jarduera eta ospakizunetan parte hartzea.

*Texto elaborado por Familias en Misión Compartida*

# LERRO-LERRO

EMAÚS
ESCUELAS PÍAS

**6 – 10 URTE BITARTEKOAK ( I )**
*Eguneroko fede heziketa*
**6 A 10 AÑOS ( I )**
*Educar en la fe en el día a día*

Ale hau FEDE HEZIKETA sailaren liburuxka bat da. Liburuxka bilduma honen gaia eta helburua seme-alaben fede-heziketa da.

FEDE HEZIKETA saila misio partekatuan dauden ikastetxeko familia batzuek egin dute arlo honetan izan dituzten kezka eta eskarmentuetatik abiaturik. Beren helburua sinplea da: 0-18 urte bitarteko seme-alabei fedea transmititzeko prozesuan dabiltzan familiei pistak eta baliabideak eskaintzea.

educa fe

Este ejemplar forma parte de la serie EDUCA FE. Se trata de un conjunto de folletos sobre la educación en la fe de nuestros hijos e hijas.

EDUCA FE ha sido elaborado por familias del colegio en misión compartida, a partir de sus inquietudes y experiencias en este ámbito. Su objetivo es ofrecer pistas y recursos a las familias en el proceso de transmisión de la fe a los hijos, desde los 0 a los 18 años.

El mejor modo de transmitir la fe a los hijos es a partir de la propia experiencia. Es importante rezar cada día, leer los sucesos cotidianos desde la fe… **La etapa comprendida entre los 6 y los 10 años es clave por varias razones:**

- En 1° de Educación Primaria comienza la catequesis de Primera Comunión.
- En 2º, se realiza la convocatoria para los grupos de tiempo libre Zidor y Scout, en los que la educación en la fe es muy importante.
- En 3º ó 4º, con 9 o 10 años, celebran el Sacramento de la Primera Comunión.

Es primordial que la forma de transmitir la fe a nuestros hijos parta de sus necesidades y se vaya adecuando a su crecimiento personal. Para ello, debemos saber cómo es su evolución religiosa.



## EVOLUCIÓN RELIGIOSA

Entre los 6 y 10 años, ya están abiertos a tener **experiencias espirituales**. Les gusta cierta intimidad, tienen momentos de autonomía y son capaces de tener una experiencia de silencio, siempre con orientación de los adultos.

Se amplia su **imagen de Dios**: ya no es el Dios Padre cercano, que actúa sobre ellos; también es el Dios Creador que actúa sobre el mundo.

**La familia** sigue siendo la fuente primordial de sus ideas morales y religiosas, pero también les influye el ambiente escolar, parroquial o social.

Comienzan a mostrar **interés por los hechos y acontecimientos** religiosos; son sensibles a las manifestaciones estéticas de la fe. Buscan respuestas concretas a lo más "abstracto" de la religión. Además, su vocabulario religioso se amplía notablemente y desarrollan el gusto por la lectura sobre temas religiosos.

En su relación con Dios son **impulsivos y creativos**: le hablan, cantan o bailan con naturalidad y sinceridad; pueden utilizar los símbolos y ritos religiosos, aunque aún no los comprendan en profundidad.

**En su oración** son capaces de pedir por los demás con naturalidad. Encuentran en ella una eficacia casi mágica que les libera de ciertos castigos o temores.

Comienzan a desarrollar un cierto **conocimiento de sí mismos** que les permite reconocer sus capacidades y limitaciones, y verse como sujetos con deberes y derechos. Por ello, son capaces de cierto esfuerzo y autoexigencia, y de responder a compromisos voluntariamente adquiridos. Ello les a desarrollar su sentido de la responsabilidad ante sí mismos, ante los padres y ante Dios.

## EDUCAR EN LA FE EN EL "TIEMPO ORDINARIO"

Lo que vivimos y experimentamos día a día lo hacemos nuestro y queda fijado para siempre. Se hace familiar, no sólo porque se vive "en familia" sino porque se convierte en cotidiano. En este sentido, la educación en la fe se juega su éxito en lo que llamamos "tiempo ordinario" y en la experiencia de fe vivida en familia.

En la Iglesia el "tiempo ordinario" ocupa la mayor parte del año: 33 ó 34 semanas, de las 52 totales. "Ordinario" no significa poco importante, sino diferente a los "tiempos fuertes" (Pascua y Navidad). **El Tiempo Ordinario** es una época óptima para, en familia, acrecentar y madurar nuestra fe, nuestra esperanza y nuestro amor.

Para ello es importante procurarles experiencias religiosas en las que vivan la fe, bien en casa, en el cole o desde la comunidad parroquial. Nosotros, como padres, procuraremos apoyarles a través de la oración, de la participación litúrgica y de la inserción en la comunidad.

**Destacamos cuatro claves fundamentales:**

- La **<u>Eucaristía semanal:</u>** debemos participar con ellos y trasmitirles la alegría de celebrarla juntos. Hay que despertar su interés y respeto por las **acciones litúrgicas** (lecturas, ofrendas) y familiarizarles con los **símbolos** (ojos cerrados para el "recogimiento", ojos elevados como "alabanza", manos juntas como "unión"...) Además, les motiva mucho aprender las **canciones**, especialmente infantiles. Todo ello desde la experiencia de ser únicos, aunque integrados en un grupo (comunidad cristiana).
- La **<u>oración diaria</u>** es importante realizarla en familia y promover oraciones individuales. **Rezar juntos** genera actitudes de agradecimiento hacia los que hacen posible su crecimiento (padres, profesores, amigos, Dios) y aumenta el sentimiento de familia. Podemos dejarles la iniciativa, normalmente en una oración que brota de la vida: petición, perdón, gracias, alabanza… Otros momentos de oración se dan **al bendecir la mesa**, en alguna oración mensual especial, con una simbología también especial: una vela, una cruz… Por otro lado, debemos seguir enseñándoles oraciones (Padre Nuestro, Ave María), y rezar con las que aprenden en clase o en la parroquia.



- La **Biblia**: es un gran recurso para favorecer su experiencia y cultura religiosa. Al leerla con ellos reflexionamos sobre los textos y **su aplicación en nuestro mundo**. Debemos favorecer las preguntas, generar interés por los personajes e imágenes y aprovechar que son muy receptivos para transmitirles los **valores del Evangelio**. Puede ser especialmente interesante que conozcan los hechos fundamentales de la vida, muerte y resurrección de Jesús.
- Las **actitudes y valores evangélicos** les entrenan a ver y a interpretar las situaciones, conflictos y problemas de la vida: **aprender a perder** y saber que no siempre se gana; solución de conflictos basada en el diálogo y comprensión mutua; **respeto** a las personas con las que conviven; saber que todo necesita un **esfuerzo y un sacrificio**; respeto y amor a los mayores (la vejez como una etapa de la vida); **sensibilidad** hacia al dolor de los demás (enfermos, pobres...); acercamiento a personas que en el entorno actual realizan acciones significativas de la misión de la Iglesia (Cáritas, Escolapios, misioneros…).

## RECURSOS ÚTILES / BALIABIDEAK

- Biblia adaptada a su edad (Edebé, San Pablo…)
- *Enséñales a rezar. Cómo y por qué orar con tus hijos*, de J. B. Geddes. Ed. Neo Person.
- *Las grandes preguntas de los niños.* VV.AA. Ed. San Pablo.
- *Jesús vivió enseñándonos a hacer el bien.* J. Mª García de Dios. Ed. PCC.
- *Caná 1. Nos encontramos con Dios. Celebración del perdón /Caná 2. Nos encontramos con Jesús niño.* VV.AA. Ed. PPC.
- *Dios está en todas partes*, de Lawrence y Karen Kushner. Ed. PCC.
- www.bizkeliza.org Página web de la Diócesis de Bilbao: recursos para orar con los niños, para acompañar en la catequesis...




Gure seme-alabei fedea transmititzeko modurik onena gure bizitzan izan dugun esperientziatik abiatzea da. Eta horretarako oinarrizko kontuak dira: egunero otoitz egitea, gure eguneroko gertaerei fedearen argipean begiratzea...

**6 eta 10 urte bitarteko etapa hau oinarrizkoa da:**

- 9 edo 10 urterekin egingo duten lehen jaunartzearen katekesia hasten da.
- 2. mailan Zidor eta Eskautak aisialdi taldeetan izena emateko deialdia egiten da, eta talde horietan fede heziketa funtsezkoa da.
- 3. edo 4. mailan Lehen Jaunartzearen sakramentua hartzen dute.

Garrantzitsua da fedea transmititzeko modu eta baliabideek gure seme-alaben premiei erantzun diezaieten eta beren hazkuntzaren erritmora egokitu daitezen. Gai honetan, gure seme-alaben eboluzio erlijiosoa kontuan izanik, laguntza handia izango dugu.

## EBOLUZIO ERLIJIOSOA

Haurrak 6 eta 10 urte bitartean **esperientzia espiritualari irekita** bizi dira. Intimitate pixka bat gustatzen zaie, autonomia uneak izan ditzakete eta isiltasun esperientziak izateko gauza dira, hala ere, beti helduen gidaritzapean.

Jainkoari buruz duten irudia zabalagoa da. Orain munduan eragiten duen **Jainko Sortzaile** gisa ere ikusten dute eta ez haiengan eragina duen norbait bezala bakarrik.

Beren ideiak, bai moralak bai erlijiosoak, **familian** izaten dute iturri nagusia, baina eskolak, parrokiak edo gizartearen giroak ere eragiten diete.

**Gertaera eta egintza erlijiosoekiko interesa** agertzen hasten dira eta sentiberak dira fedearekin erlazionatuak dauden adierazpen estetikoekin. Erantzun zehatzak bilatzen dizkiote erlijioaren alderdi “abstraktuenari”. Gainera modu harrigarrian zabaltzen dute erlijio hiztegia eta erlijio gaiak irakurtzeko zaletasuna azkar handitzen dute.

**Jainkoarekiko harremanetan** oldarkor eta sortzaileak izaten dira: naturaltasun eta zintzotasun osoz hitz egin, kantatu edo dantza egingo diote;

nahiz eta sakon ez ulertu, sinbolo eta erritu erlijiosoak erabil ditzakete.

**Otoitzean** besteen alde eskatzeko gai dira eta naturaltasunez ateratzen zaie. Otoitzean zenbait zigor eta beldurretatik askatzen dituen eraginkortasun ia-ia magikoa aurkitzen dute.

**Bere burua ezagutzen hasten da**. Horrek bere ahalmen eta mugak ezagutzea ahalbidetzen dio eta horrela bere burua betebehar eta eskubideen subjektutzat suma dezake. Beraz gaitasuna du autoexijentzia eta esfortzurako eta boluntarioki hartu ohi dituen konpromisoei erantzuteko. Horrek guztiak nor beraren, gurasoen eta Jainkoaren aurrean duen erantzukizun ideia garatzeko gaitasuna emango dio.

## FEDEAN HEZTEA "URTEAN ZEHAR"

Egunez egun bizi eta esperimentatzen dena gurea egiten dugu eta betiko gelditzen da. Hori horrela da familiarra egiten delako, ez bakarrik familian bizitzen delako, baizik eta ohiko bihurtzen delako. Zentzu honetan fede heziketak "urtean zeharreko garaia" dei dezakegunean eta familian bizitzen den fede esperientzian lortzen du bere arrakasta.

Elizan "garai arruntak" (urtean zeharrekoak) urteko 52 asteetatik 33 edo 34 hartzen ditu. "Arruntak" ez du esan nahi garrantzia gutxikoa denik, baizik eta garai sendoetatik (Pazkoa eta Eguberri) bereizteko esaten dela. **Urtean zeharreko garaian** saiatu behar dugu gure fede, itxaropena eta maitasuna handitzen eta osatzen.

Horretarako ezinbestekoa da familian, ikastetxean edo parrokia elkartean fedea landuko duten esperientzia erlijiosoak sortzea,. Gurasoak haien fede-bizitzaren hazkundeari laguntzen saiatuko gara geure buruak komunitatean txertatzen, otoitzaren bidez eta liturgian parte hartzen.

**Oinarrizko lau gai nagusi** nabarmentzen ditugu horretarako:

- **Asteroko eukaristia:** haiekin parte hartu eta eukaristia ospatzeko poza transmititzeak **ekintza** liturgikoentzako (irakurgaiak, eskaintzak...) interesa sorrarazten die; ospakizunetako **sinboloetan** (begi itxiak "barnera biltzea", gorako begiak "goralpena", esku batuak "batasuna"...) sartzen ditu; azalpen erlijiosoekiko **errespetua** ikasten dute; liturgiak eskatzen dituen zeinuak, erantzunak eta barruko eta kanpoko jarrerak ikasten laguntzen die haurrei. Gainera **abestiak**, batez ere haur kantak, ikasteak dezente motibatzen ditu. Eta hori guztia bakarrak izatearen eta, aldi berean, talde batean (kristau komunitatea) txertatuta egotearen esperientziatik abiaturik.
- **Eguneroko otoitza:** garrantzitsua da familian egunero otoitz egin eta bakarkako otoitzak sustatzea. Otoitzean parte hartzeak haien haziera-bidea ahalbidetzen duten guztientzat (guraso, irakasle, Jainkoarentzat) esker oneko jarrerak sorrarazi eta **familia sentimendua handitzen du**. Iniziatiba ematen badiegu, normalean otoitza bizitzatik sortuko da: eskatu, barkatu, eskerrak eman, alabatu... Badira otoitz egiteko beste une batzuk: egokiera berezi batean (zeinu bereziekin: kandela, gurutzea...) mahaia bedeinkatzea. Beste alde batetik tinko jarraituko dugu otoitzak (Gure Aita, Agur Maria...) irakasten, gelan eta parrokian ikasten dutenekin otoitz egiten, eskerrak eman edo barkamena eskatzeko formula txikiak irakasten.



- **Biblia:** baliabide aberatsa da haien esperientzia eta kultura erlijiosoa lantzeko. **Haiekin batean irakurtzean** testuen gainean eta gure bizian nola aplikatu gogoeta egiten dugu. Bibliako aberastasuna aprobetxatu nahi badugu irakurri bitartean galderak egiteko aukera eman behar diegu, **pertsonaia eta irudiei buruzko interesa** sorrarazteko eta umeak oso irekiak direnez ebanjelioaren balioak irakasteko. Batez ere, Jesusen bizitza, heriotza eta piztuerako egintza nabarmenak ezagutaraz ditzakegu.
- **Ebanjelioko jarrera eta balioak** bizitzako egoera, gatazka eta arazoak ikusi eta ulertzeko: **galtzen ikasi** eta ez dela beti irabazten jakitea; gatazkak elkarrizketan eta elkar ulertzean oinarrituz konpontzea; bizi diren pertsonekiko errespetuari dagozkion **arauak betetzea**; denak **esfortzu eta sakrifizio** bat behar duela jakitea; adinekoak (zahartzaroa bizitzako etapa gisa) **errespetatu eta maitatzea**; besteen (gaixoen, pobreen...) oinazearekin sentiberak izatea. Gaur egun Elizaren misioan **ekintza esanguratsuak** egiten dituzten pertsonak (Caritas, eskolapioak, misiolariak...) ezagutaraztea.